

BESTELAKO XEDAPENAK

SPRI-ENPRESEN GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA

4023

EBAZPENA, 2026ko irailaren 17koa, SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez «Emakumea industriara» programako laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzen baitira, eta 2026ko deialdia egiten baita.

SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia (hemendik aurrera, «SPRI») Zuzenbide Pribatuko Entitate Publikoa da, Eusko Jaurlaritzako Industria, Energia Eraldaketa eta Iraunkortasuna Sailaren mendekoa. Euskal Autonomia Erkidegoan, honako hauek sustatzera bideratutako jarduketaz arduratzen da: industria- eta enpresa-jarduera, inbertsioa, garapena, dibertsifikazioa eta industria-lehiakortasuna, berrikuntza, nazioartekotzea, Informazio eta Ezagutza Gizartearen garapena, eta enpresa arloko ekintzailatza-jarduera.

Genero-berdintasuna giza eskubideen auzia izateaz gain, SPRIk euskal industriaren lehiakortasuna eta susperraldi ekonomikoa bermatzeko funtsezko alderditzat jotzen du.

Ildo horretan, SPRIk emakumeek industrian duten egoerari buruzko eztabaida sustatu du, eta, aldi berean, praktika egokiak eta gomendioak identifikatu ditu emakumeak industria-enpresetan sartzeko, lanbidean aurrera egiteko eta lidergo-postuetara iristeko dituzten aukerak hobetzeko. Eztabaida nagusiak eta ondorio nagusiak World Economic Foundation erakundearentzat prestatutako txostenetan jaso dira (Genero-berdintasuna euskal industrian: jardunbide egokien eta adibideen txostena – SPRI).

2023an aurkeztu zen «Emakumearen eragina industria-lehiakortasunean» SPRIren azterketan, genero-berdintasunerako eta lehiakortasunerako emaitzarik onenak lortu zituzten euskal enpresek garatutako jardunbide egokiak aztertu dira txosten honetan. Azterketa horretan frogatu zutenez, genero-berdintasuneko maila handiena duten enpresak lehiakorragoak dira, eta emaitza hobeak dituzte fakturazioari, eta enpleguari dagokienez.

Jardunbide egoki horien arabera, lehentasunezkoztat jotzen den jarduera-eremuetako bat emakumeen enplegarritasuna industrian handitzea da.

Txostenean adierazten denez, munduko biztanleriaren % 50 eta eskulanaren % 47 izan arren, emakumeak % 20 inguru soilik dira industriako langileriaren artean. Balio horiek bat datoz Euskadiko industriaren datuekin ere. Euskadiko enpresa industrialen enplegu osoaren barruan % 21,7 soilik dira emakumezkoak. Era berean, egiaztatu da zenbait enpresarentzat funtsezkoa dela unibertsitateekin eta lanbide-heziketako ikastetxeekin aliantzak sortzea, emakumeei praktikaldietan enpresetara sartzeari errazteko.

Bestalde, SPRIk hainbat jarduera sustatu eta garatzen ditu euskal enpresen nazioarteko lehiakortasuna hobetzeko, eta horretarako, beste tresna batzuen artean, beketarako programa batzuketan, euskal gazteei atzerriko enpresa eta entitatetan prestakuntza praktikoa egiteko aukera ematea helburu dutenak.

Era berean, 2025eko irailaren 30eko Gobernu Kontseiluan onartutako Industria Plana – Euskadi 2030 hiru ardatz estrategikotan (industria gehiago, industria hobea eta emisio gutxiago) eta zeharkako ardatzetan (desburokratizazioa) eraikitzen da. Horiek Europako egungo testuinguruan eraldaketa industrialaren ikuspegi integrala islatzen dute. Ardatz estrategiko bakoitza proiektu zeha-

tzen bidez hedatuko diren ekintza-ildoak biltzen dituzten bost lehentasun estrategikotan zehazten da. Hamasei lehentasunek Europako industrian abian diren trantsizio handiei erantzuten diete.

Euskadi 2030 – Industria Planak zehazten du zer erronkari aurre egin behar dion euskal industriak irmotasunez. Era berean, Europako lehentasun estrategikoekin bat egiten du, eta Euskadiko industria-sektore estrategikoak hiru kategoriatan sailkatzen ditu:

1.– Irabazi (Industria arloko sektore bultzatzaileak).

- Balio Erantsi Gordinari (BEG) eta Enpleguari ekarpen handia Euskadin.
- Enpleguaren kalitate handia (egonkortasuna, prestakuntza eta ordainsaria).
- Esportazio-bolumen handia eta esportazio-espezializazio jasoa = Produktibitate handia + Lehiakortasuna.

- Intentsitate teknologiko ertain-altua.

- EBko industria-politikaren lehentasunekin eta finantzaketa-programekin lerrokatzea.

2.– Hazi (Etorkizunean bultzatzaileak izan daitezkeen sektoreak).

- Intentsitate teknologiko handia + gaitasun zientifiko-teknologikoak.
- Europako Batzordearen lehentasunetan eta Europako programetan sektore estrategiko gisa aitortua izatea.

- Datozen hamarkadetan, merkatu globaletan hazteko potentzial handia.

- Etorkizunerako potentziala duen Irabazi azpisektorea.

3.– Jauzi (Beren merkatuan lidergo-potentziala duten beste sektore batzuetako enpresak). Beste edozein sektoretako enpresek, baldin eta Proiektu Eraldatzaileak planteatzen badituzte, eta horiek merkatuan duten kokapenean jauzi kualitatiboa eragiten badute honako dimentsio hauetako batean gutxienez: teknologia, berrikuntza, nazioarteko proiektzioa edo jasangarritasuna. Proiektu Eraldatzaile mota horiek edozein sektoretan sor daitezke. Horiek bereizten dituen ez da abiapuntua, baizik eta eraldaketa estrukturalerako duten potentziala; izan ere, eragin argia eta zabala dute produktu eta zerbitzuen bereizgarritasunean, lehiakortasuna eta merkatu-kuota handitzeko. Euskal ETEen proiektu arrakastatsuek ezkutuko txapeldun berriak sortzea ekar dezakete.

Industria-politikaren jardunbide egokiekin bat etorritik, Euskadi 2030 – Industria Planak ikuspegi proaktiboa hartzen du, lehentasun estrategikoak babestuko dituzten Proiektu Eraldatzaileen multzoa bultzatzeko. Proiektu horiek industrian dauden laguntza-programen eta zerbitzuen osagarri eta gehigarri izango dira.

Emakumea Industriara lidergo publikoaren Proiektu Eraldatzaile gisa hartzen da Planean, eta honako lehentasun estrategiko hau lortzen laguntzea du helburu: industriara talentu berria erakartzea eta garatzea. Horretarako, programa bat sortzea aurreikusten da; programa horrek barne hartuko du kanpaina bat abian jartzea emakumeak industria-jarduera produktibora hurbiltzea eta bertan txertatzea sustatzeko. Proiektu Eraldatzaile horren bidez, halaber, industrian arlo teknikoetan emakumeek lortutako lorpenak ikusarazi nahi dira, baita sektore horri lotutako zerbitzuetan erabat txertatzea ere.

Planean adierazten den bezala, Proiektu Eraldatzailearen ekimen honek entitateen arteko koordinazioa eskatuko du Industria, Enplegu eta Hezkuntza sailetan, baita klusterrekin eta uni-

bertsitateekin ere. Horretarako, ahaleginen egungo sakabanaketa gaindituko duen ikuspegi disruptiboa hartuko da.

Testuinguru horretan, Programa honen helburua da sustatzea emakumeak Euskadiko industria-enpresetako lanpostu produktiboetan txertatzea.

Horrela, industria-politikako tresna gisa eratzen da, emakumeen talentua ekoizpen-sarera sartzea errazteko, industriako profil-faltari aurre egiten laguntzeko eta enpresen lehiakortasuna hobetzeko.

Prestakuntza-aldi baten bidez egituratzen da programa, Euskadiko industria-enpresek identifikatutako kontratazio-beharren arabera diseinatuta. Aldi hori enpleguan benetan hasi aurreko fase gisa eratzen da, eta parte-hartzaileak lanpostu produktiboetan integratzea erraztea du helburu, lanpostuarekin lotutako gaitasunak eskuratuz.

Dirulaguntzen Erregimena Arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legeak (DEAL) 7.2.a) artikuluan eskatzen du Lege horrek ezartzen duen dirulaguntzen kudeaketa eta esleipena hainbat printzipioren arabera egiteko, besteak beste, publizitate-printzipioren arabera. Era berean, DEALen 8.3 artikulua ezartzen du dirulaguntza edo diruz lagundutako programa mota bakoitzaren oinarri arautzaileak argitaratu behar direla Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Hori guztia dela eta, hauxe

EBAZTEN DUT:

«Emakumea industriara» Laguntza Programari dagozkion oinarri arautzaileak eta 2026ko deialdia onartzea. Horren edukia eranskin gisa gehitu da ebazpen honetan.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ebazpen honek eragina izango du Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Ebazpen honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke SPRIren Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbao, 2026ko irailaren 17a.

SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusia,
JON ANSOLEAGA UGARTE.

ERANSKINA

2026KO EMAKUMEA INDUSTRIARA LAGUNTZA PROGRAMAREN OINARRI
ARAUTZAILEAK

1. artikulua.– Xedea.

Oinarri hauen xedea da itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak emateko programa arautzea Euskadiko industria-enpresetako ingurune maskulinizatueta lanpostu produktiboetan emakumeak txertatzea sustatzeko hautatzen diren entitateei.

Entitate onuradun bakoitzak gutxienez 6 emakumerentzako bekak kudeatzeko eskaintza egin beharko du, industrian lan egiteko interesa duten emakumeei zuzenduta. Kudeaketa horrek prestakuntza-aldia eta ondorengo lan-kontratazioa hartuko ditu barne.

Ez da ezartzen ez entitate onuradun bakoitzari esleitu ahal izango zaion beka-kopuruaren gehieneko mugarik, ezta entitate onuradunen gehieneko kopururik ere.

2. artikulua.– Izaera.

1.– Laguntza horiek ondoz ondoko esleipen-prozeduraren arabera emango dira.

2.– Programa honen barruan emandako laguntzek itzuli beharrik gabeko dirulaguntza-izaera izango dute.

3.– Programa hau aplikatzearen ondorioz emandako laguntzek garrantzi txikiagoko edo de minimis laguntza izaera dute. Ondorioz, 2023ko abenduaren 13an Europako Batzordeak onartutako (EB) 2831/2023 Erregelamenduak xedatutakoaren mende egongo dira («2831/2023 Erregelamendua»).

3. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Dirulaguntza-programa honen helburura bideratutako baliabide ekonomikoak 975.000 eurokoak dira 2026an, eta SPRIren aurrekontuetan horretarako ezarri diren aurrekontu-zuzkiduretatik etorririko dira. SPRIren aurrekontuak 2026rako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan sartuta daude.

4. artikulua.– Entitate onuradunak eta izaera hori lortzeko eskakizunak.

1.– Oinarri hauetan jasotako laguntzen onuradun izan daitezke II. eranskinean deskribatutako «Emakumea Industriara» beketarako deialdia egiten duten pertsona juridiko publiko edo pribatuak, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Eskaera aurkezteko eguna baino gutxienez bi urte lehenago, eratuta dagoen pertsona juridikoa izatea.

b) Euskadiko Ekonomia Jardueren Gaineko Zergan alta emanda egotea.

c) Prestakuntza emateko gaitasuna izatea, edo, bestela, hura azpikontratatzeko aukera izatea. Kontratazio-konpromisoa bere gain hartzen duen industria-enpresa bera ere izan daiteke entitate onuraduna. Laguntzen onuradun izatetik kanpo geratzen dira aldi baterako laneko enpresak, outsourcing-eko enpresak eta langileentzako zerbitzu anitzeko enpresak.

2.– Honako hauek ezingo dituzte jaso deialdi honetan aurkezten diren dirulaguntzak:

a) DEALen 13. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean daudenek.

Zehazki, eskatzaileek zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzako betebeharrak eta dirulaguntzen itzulketen betebeharrak betetzen dituztela aintzat hartuko da Ekonomia eta Ogasun Kontseilariak 2023ko otsailaren 13an Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako laguntzen eta dirulaguntzen esparruan, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak –baita dirulaguntzak itzultzearekin lotutakoak ere– betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa emandako aginduak ezarritako kasuetan. Hala, dirulaguntzen itzulketen betebeharren ordainketan eguneratuta dagoela aintzat hartuko da zorrak zatikatuta edo atzeratuta eta bermatuta daudenean edo itzultzeko dagokion ebazpenaren aurkaratzea bertan behera uztea adostu bada.

b) Europako Batzordeak laguntza bat legez kanpkoa dela edo barne-merkatuarekin bateraezina dela erabaki ondoren, laguntzak errekupeatzeko agindu baten mende daudenek.

c) LGBTIfobia egin, bultzatu edo sustatzea, bihurketa-terapiak sustatu edo egitea barne, Pertsona transen berdintasun erreal eta eragingarrirako eta LGBTI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen arabera.

d) Armak ekoizten, merkaturatzen eta finantzatzen aritzen direnek, 14/2007 Legeak, 2007ko abenduaren 28koak, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunarenak, xedatutakoaren arabera.

e) Aurreko hiru urteetan, de minimis laguntza gisa 300.000 euro baino gehiago jaso dutenek.

f) 30.000 eurotik gorako dirulaguntzen kasuan soilik, Merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeak aurreikusten dituen ordainketa-epeak betetzen ez dituztenek.

3.– Laguntza-eskaera aurkezten den unetik hasi eta emandako dirulaguntza likidatu arte bete beharko dira aurreko apartatuetan laguntzen onuradun izateko aipatutako eskakizunak.

5. artikulua.– Jarduketak, diruz lagun daitezkeen gastuak eta gehieneko laguntza-zenbatekoak.

1.– Diruz lagundu ahal izango dira proiektuak gauzatzeko beharrezkoak diren jarduketak, honako hauek barne: lanpostu produktiboei lotutako prestakuntza, lan-harremanik gabeko bekak kudeatzea eta ordaintzea, parte-hartzaileak erakartzea eta hautatzea, industria-enpresekin koordinatzea, eta laneratzea errazteko laguntza- eta akonpainamendu-jarduketak, emakumeek industria-ingurunean benetan parte hartzea ahalbidetzen duten ekintzak barne.

Onuradunek eskura dituzten ekintza guztiak egin beharko dituzte Global Emakumea bekak behar bezala garatzen direla bermatzeko, eta erantzule izango dira oinarri hauetan ezarritako aurreikuspenak betetzen direla egiaztatzeko, II. eranskina barne.

2.– Hain zuzen, honako gastu hauek izango dira diruz lagundu daitezkeenak: kontratazio-konpromisoa duen prestakuntza ematearen ondoriozko gastuak; prestakuntza egiten den bitartean beka bakoitzaren zuzkidura estaltzeko gastuak; eta prestakuntza-aldian bekadun diren emakumeen kudeaketa-, administrazio- eta aseguru-gastuak.

Zehazki:

a) Kontratazio-konpromisoa duten prestakuntza-ikastaroetatik eratorritako gastuak. Ikastaro horiek gehienez 6 hilabeteko iraupena izango dute, eta gehienez 7.000 euroko kostua pertsonako, guztira. Horrez gain, hilean gutxienez 120 orduko dedikazioa eskatuko da. Gastu horiek kostuaren

% 100era arte diruz lagundu ahal izango dira. Prestakuntza egiten den bitartean emakumeei estaldura nahikoa eta egokia bermatzen dieten aseguru-gastuak ere barne hartzen dira.

Onuradunak prestakuntzaren edukia industria-enpresa bakoitzaren eta bekadun emakume bakoitzaren benetako beharretara egokitu beharko du, baita enpresaren berdintasun-planetara ere. Haren jarduera-ingurunean edo identifikatutako lanpostuarekin lotura estuan diseinatuko da, eta zuzenean aplikatzeko moduko gaitasun praktikoak eskuratzera bideratuko da proiektu bakoitzaren ezaugarrien arabera.

Prestakuntzak alderdi teorikoa eta praktikoa uztartu beharko ditu, kasu bakoitzean bien arteko oreka egokia bermatuz. Horretarako, prestakuntza baliabide propioekin edo hirugarrenen bitartez eman ahal izango da.

Prestakuntza-ekintzak soilik emango dira aurrez aurreko modalitatean. Ikastaroak Lanbideren edo baliokidea den beste entitate baten homologazioa izan beharko du, edozein homologazio-modalitatetan.

Prestakuntza-ekintzen gauzatzea 2026ko azaroaren 15a baino lehen hasi beharko da, eta hurrengo sei hilabeteen barruan amaitu.

Ondorio horietarako, entitate onuradunak ziurtagiri bat eman beharko du, pertsonak prestakuntza-ekintza behar bezala amaitu duela egiaztatzeko.

Prestakuntza hori gainditzeak, entitate onuradunak egiaztatu beharko duenak, industria-enpresak hartutako kontratazio-konpromisoa aktibatuko du, honako baldintza hauetan:

(i) Entitate onuradunek konpromisoa hartu beharko dute prestakuntza-ekintza hasten duten pertsonen gutxienez % 50 kontratatzeko, prestakuntza-ekintza hasten denetik sei hilabeteko epean. Epe hori luzatu ahal izango da, behar bezala justifikatutako kasuetan, laguntza ematen duen organoak hala eskatzen badu eta baimentzen badu, gehienez beste hiru hilabetez.

Kontratazio-konpromisoen gutxienez % 50 ez betetzeak dirulaguntzaren % 50 ordaintzeko eskubidea galtzea ekarriko du.

(ii) Kontratuak mugagabeak edo aldi baterakoak izan ahal izango dira, eta gutxienez 6 hilabeteko iraupena izango dute. Nolanahi ere, kontratu horiek lan-arloko legediak ezarritako kontratazio-modalitateen arabera formalizatu beharko dira.

(iii) Kontratazioak lanpostu produktiboei buruzkoa izan beharko du, eta kontratatutako pertsonaren profil profesionalera egokitua; hau da, pertsonaren ikasketa- edo prestakuntza-mailarekin eta lan-esperientziarekin bat etorri beharko du, baldin eta prestakuntza hori bete beharreko lanposturako eskatzen bada.

b) Beketako bakoitzaren zuzkidura estaltzeko gastuak honako hauek izango dira: 1.000 euro hileko (gordinak, hala badagokio, entitate onuradunarentzat, enpresarentzat eta emakumearentzat) emakume bekadun bakoitzeko, hilean gutxienez 120 orduko prestakuntza eginda, gehienez 6 hilabetez, kostuaren % 100era arte. Lehen aipatutako dirulaguntzaren % 50 ez ordaintzeak ezingo du, inola ere, eraginik izan emakumeei kontzeptu horrengatik dagokien ordainketan (zenbateko gordinean), II. eranskinaren arabera.

Iraupena laburragoa bada, gastua proportzionalki egokituko da.

c) Entitate onuradunen «Emakumea Industriara» beka-programa abian jartzeak, kudeatzeak, administratzeak, komunikatzeak eta argitaratzeak eragindako gastuak.

Laguntzak 2.000 eurokoak izango dira emandako beka bakoitzeko, kostuaren % 100era arte.

3.— Ez dira kontuan hartuko DLOko 31.3 artikulua, aplikagarria denean, betetzen ez duten gastuak abenduaren 29ko 3/2004 Legeak (Merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka egiteko neurriak ezartzen dituen) aurreikusten dituen ordainketa-epeei dagokienez.

4.— Era berean, DEALen 31.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, onuradun batek azpikontratatu edo kontratatu egiten duela ulertuko da hirugarren batekin adosten duenean dirulaguntzaren xede den jarduera osorik edo zati batean gauzatzea. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen da onuradunak diruz lagundutako jarduera bere kabuz gauzatzeko egin beharreko gastuen kontratazioa. Ondorio horietarako, azpikontratazioa edo hirugarrenen kontratazioa diruz lagundutako jardueren % 100era arte iris daiteke, bekak kudeatzeko eta administratzeko jarduerak izan ezik; izan ere, horiek baliabide propioekin egin beharko dira.

Horrela, DEALen 30.3 artikuluan aurreikusitakoa betez, diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak gainditu egiten baditu sektore publikoko kontratazioaren arloan indarrean dagoen araudiak kontratu txikirako ezarritako kopuruak, eta betiere hirugarrengoen kontratazioaren bat baldin badago, onuradunak gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu lana egiteko, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, bere ezauzgarriak bereziak izateagatik, merkatuan ez badago lana egiteko, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko behar beste entitate, edo gastua dirulaguntza eman baino lehen egin bada. Dirulaguntzaren justifikazioan edo eskaeran aurkeztutako eskaintzen artean aukeratzeko, efizientziaren eta ekonomiaren irizpideak hartuko dira kontuan, eta abantailarik handienak dituen proposamen ekonomikoa aukeratzen ez bada, berariaz justifikatu beharko da memoria batean.

6. artikulua.— Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.— Programa honetako laguntzak beste laguntza bateragarri batzuekin, diru-sarrera publiko edo pribatuekin, edo Europako beste finantzaketa-modu batzuekin metatu ahal izango dira, baldin eta, diruz lagundu daitezkeen gastu berberetarako, programa bakoitzean ezarritako gehieneko intentsitateak errespetatzen badira, banaka hartuta.

2.— Laguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izango entitate onuradunak garatzeko asmoa duen jardueraren kostua baino handiagoa, soilik laguntza hori aintzat hartuta edo edozein administrazio edo horien sektore publikoek xede bererako emandako beste laguntza batzuk edota bestelako sarrera mota batzuk gehituta. Beste laguntza publiko batzuk eta programa honen bidez emandakoa metaturik lortzen den zenbatekoak gainditu egiten badu kostu hori, murriztu egingo da programa honetan araututako laguntzaren zenbatekoa jardueraren gehiegizko finantzaketa saihesteko behar den neurrian. Aurrez aipatutako muga horiek edo programa honek zehazten dituen beste batzuk gaindituz gero, soberako kantitatea murriztu egingo da programaren arabera emandako zenbatekotik.

3.— Programa hau aplikatuz emandako laguntzek garrantzi gutxiagoko laguntzen edo de minimis izaera dute.

Entitate onuradun batek jaso dezakeen de minimis guztien kopurua ezingo da 300.000 eurotik gorakoa izan aurreko hiru urteetan.

De minimis laguntzak ez zaizkio metatuko Estatuko inongo dirulaguntzari, diruz lagun daitezkeen gastu horiei dagokienez, ezta arriskuaren finantzaketa-neurri berdinentzako Estatuko beste edozein dirulaguntzari ere, baldin eta metatze horrek gaindituko balu laguntzaren intentsitatea edo dagokion dirulaguntzaren kopururik altuena. Gehieneko kopuru hori kasu bakoitzaren ezaugarri

zehatzen arabera dago ezarrita, kategorien araberako salbuespen-araudi baten edo Batzordeak harturiko erabaki baten bitartez.

De minimis laguntzak emandakotzat hartuko dira enpresari laguntza jasotzeko eskubide legala ematen zaion unetik hasita.

7. artikulua.– Eskaerak eta dokumentazioa aurkezteko epea.

1.– Oinarri hauek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da laguntza-eskaerak aurkezteko epea, eta 2026ko azaroaren 12an amaituko da.

2026ko irailaren 1etik aurrera hasitako prestakuntza-proiektuen eskaerak onartuko dira; kasu horretan, oinarri hauetan ezarritakoaren arabera behar bezala justifikatzen diren kontzeptu berberak finantzatuko dira.

2.– Oinarri hauetatik eratorritako eskabideak, errekerimenduak, jakinarazpenak eta gainerako kudeaketak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira. Eskabidea helbide elektroniko honen bidez eskuratu eta beteko da: <https://www.spri.eus/laguntzak/emakumeaindustriara/>

3.– Eskabideekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Entitateko lege-ordezkararen izen-abizenak eta Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia (NAN) edo Atzerritarraren Identifikazio Zenbakia (AIZ). Eskaera sinatzen duen pertsonaren NANA, salbu eta laguntza-eskaera eskatzailearen ordezkariek sinatu badu. Ziurtagiriak indarrean egon behar du, agintaritza ziurtatzaile batek emandakoa izango da eta aukera eman beharko du IFZ zenbakiari eta eskatzailearen izen sozialari buruzko datua egiaztatu ahal izateko.

b) Identifikazio Fiskaleko Txartela, salbu eta laguntza-eskaera eskatzailearen ordezkariek sinatu badu. Ziurtagiriak indarrean egon behar du, agintaritza ziurtatzaile batek emandakoa izango da eta aukera eman beharko du IFZ zenbakiari eta eskatzailearen izen sozialari buruzko datua egiaztatu ahal izateko.

c) Entitatea eratzeko eskriturak, salbu eta laguntza-eskaera eskatzailearen ordezkariek sinatu badu. Ziurtagiriak indarrean egon behar du, agintaritza ziurtatzaile batek emandakoa izango da eta aukera eman beharko du IFZ zenbakiari eta eskatzailearen izen sozialari buruzko datua egiaztatu ahal izateko.

d) Legezko ordezkararen notario-ahalordea, salbu eta laguntza-eskaera eskatzailearen ordezkariek sinatu badu, pertsona juridikoaren ordezkararen ziurtagiriaren bidez. Ziurtagiriak indarrean egon behar du eta agintaritza ziurtatzaile batek emandakoa izango da.

e) Banku-kontuaren titulartasun-ziurtagiria, ordainketak egiteko.

f) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, entitate eskatzaileak uko egiten badio SPRIk alderdi horiek ofizioz egiaztatu ditzan.

g) «Emakumea industriara» beka-programa garatzeko proiektua, honako hauek barnean hartuta:

i) Deialdian eskatu nahi den Emakumea industriara beka kopurua.

ii) Hautatutako emakumeei kontratatu aurretik emango zaien prestakuntza-plana. Prestakuntza-plan hori 5. artikuluan zehaztutako baldintzetara egokituko da.

iii) Kontratazio-konpromisoak, 5. artikuluan eskatutako baldintzak betetzen dituztenak.

iv) Proiektuaren garapena bermatuko duten ekintzen kronograma, deialdiaren arabera.

v) Proiektuan jasotako ekintzak garatzeari dagokion aurrekontu osoa.

vi) Proiektua garatzeko, entitate eskatzaileak dituen giza baliabideak, baliabide material proiektuak edo hirugarrenenak eta esperientzia.

h) Proiektu hori bera gauzatzeko beste entitate publiko zein pribatu batzuei eskatutako eta haiek emandako dirulaguntzak, bertan adieraziz laguntza hori noiz eskatu zen, edo, hala badagokio, zein organismok eman zuen, zein programaren baitan eta laguntzaren zenbatekoa.

i) I. eranskinaren arabera erantzukizunpeko adierazpena.

j) Aurreko hiru urtetan jasotako de minimis laguntzen zerrenda; bertan adierazi beharko da laguntza hori noiz eman zen, zer entitatek eman zuen, zein programaren baitan eta laguntzaren zenbatekoa.

k) 30.000 eurotik gorako laguntza-eskaeren kasuan, erantzukizunpeko adierazpena, edo, hala badagokio, ROACen izena emandako auditorearen ziurtagiria, edo Adostutako Prozeduren Txostena ordaintzeko epe legalei lotuta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 bis artikulua betetzeari dagokionez, manu horrek zehaztutako baldintzetan.

4.– Ez da derrigorrezkoa SPRIren eskuetan dauden eta indarrean dauden dokumentuak aurkeztea. Entitate eskatzaileak dokumentazio hori aurkeztu badu, eskabidean adierazi beharko da zer egunetan eta zer organo edo bulegotan aurkeztu zen.

Halaber, SPRIk ofizioz egiaztatuko du, eskatzaileak aurka egin ezean, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

5.– Laguntza-eskaera, aurkeztu beharreko dokumentazioarekin batera, hautatutako hizkuntza ofizialean aurkez daiteke. Halaber, laguntza-eskaeratik eratorritako jardueretan, eta prozedura osoan, entitate eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko 10/1982 Legean, azaroaren 24koan, ezarritakoaren arabera.

8. artikulua.– Onartzea eta zuzentzea.

SPRIk ikusten badu aurkeztutako dokumentazioan akatsen bat, hutsegiteren bat edo zehaztasun-faltaren bat dagoela, entitate eskatzaileari jakinaraziko dio, eta 10 eguneko epea emango dio akatsa zuzentzeko, eta ohartaraziko dio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela. Epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, bertan behera utziko dela aitortzeko ebazpena emango da.

9. artikulua.– Esleipenaren prozedura.

1.– Laguntza horiek behar bezala jasotako laguntzen ondoz ondoko esleipenaren arabera emango dira. Ondorioz, banaka eta modu ordenatuan ebatziko dira, oinarri hauetan zehaztutako dokumentazio guztiarekin eskaera osatu den unea kontuan hartuta.

2.– Programa honetan emandako dirulaguntzak ez daude zuzenean lotuta esportatutako kopuruei, banaketa-sare bat ezartzeari eta ustiatzeari, edo esportatzeko jarduerari lotutako beste gastu korrante batzuei.

10. artikulua.– Esleipenaren prozedura.

1.– Organo kudeatzaileak kudeatuko ditu laguntza-eskaerak, espedientea osorik dagoen unetik aurrera.

2.– Ebazpena SPRIko Zuzendaritza Nagusiaren titularrak egingo du, ondoz ondoko esleipenaren erregimenean, eta eskatzaileari jakinaraziko zaio gehienez ere 10 egun balioduneko epean, igortzen denetik zenbatzen hasita. Eskaera baiesten edo ezesten duen ebazpen hori SPRIko zuzendari nagusiak emango du, eta eskatzaileari jakinaraziko zaio; halaber, haren aurka berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahalko da SPRIren zuzendari nagusiaren aurrean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epe eta moduan.

3.– Ebazteko epea. Ebazteko gehieneko epea 6 hilabetekoa izango da agiri guztiak aurkezten diren egunetik kontatzen hasita. Aipatutako epean ebazpenik ematen ez bada, ezetsi egin dela ulertuko da.

4.– Ebazpenen berri ematean, zenbateko dirulaguntza emango den jakinaraziko da, zein baldintzatan ematen den, EBren 2831/2023 Erregelamenduaren arabera izatea eta jarduera hori garatzeko beharrezkoa den beste edozein baldintza ere adieraziko da.

5.– Ebazpena SPRIren webgunean eta EHAA-n argitaratuko da, denek izan dezaten emandako laguntzen berri.

11. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Oinarri hauen arabera emango diren dirulaguntzen onuradunek honako artikulua hauetan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte: DEAlen 14., 27. eta 42. artikuluetan jasotakoak, eta zehazki eta xede mugatzailerik gabe, hauek:

- a) Dirulaguntzaren esleipena oinarritzen duen jarduera egitea edo egoera horretan egotea.
 - b) SPRIren aurrean eskakizunak eta baldintzak betetzen direla justifikatzea, eta dirulaguntzak jasotzeko edo gozatu ahal izateko beharrezkoa den jarduera egitea.
 - c) Emandako Dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, laguntza emateko ebazpena jakinarazi eta 10 egun baliodun igaro ondoren, laguntzari berariaz eta idatziz uko egin ez bazaio, laguntza onartu egin dela ulertuko da.
 - d) Emandako laguntza jarduketa-plana aurrera eramateko erabiltzea, baita esleipenaren xede izan ziren gastuak finantzatzeko ere.
 - e) Hala badagokio, SPRIk egin beharreko egiaztapen-jarduketak baimentzea edo Eusko Jaur-laritzako Kontrol Ekonomikorako Bulegoak, Euskadiko Kontu Publikoen Auzitegiak edo Estatuko zein Erkidegoko beste edozein kontrol-organo eskudunek jasotako dirulaguntzen gainean egin beharreko beste edozein egiaztapen eta kontrol finantzario baimentzea, aurretik aipatutako zeregin horiek egiteko beharrezkoa den edozein informazio emanez.
 - f) SPRIri jakinaraztea hemen araututako dirulaguntzen xede bererako laguntzak edo dirulaguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak jaso dituztela beste administrazio edo entitate publiko edo pribatu batzuetatik.
- Jakin eta berehala jakinarazi beharko da, eta, nolanahi ere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen edo justifikatzeko unean.
- g) SPRIri jakinaraztea dirulaguntza emateko garaian kontuan hartutako edozein gorabehera objektibo zein subjektibo aldatu dela.
- Jakin eta berehala jakinarazi beharko da, eta, nolanahi ere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen edo justifikatzeko unean.

h) Dirulaguntza emateko ebazpena eman baino lehen eta hura ordaintzeko unean, zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzeari dagozkionak beteta daudela egiaztatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan ogasunaren arloko eskumena duen sailaren titularraren aginduz erregelamendu bidez ezarritako moduan. Eskatzaileak SPRIren ofiziozko kontsultaren aurka egiten badu, dagozkion agiriak aurkeztu beharko ditu.

i) Entitatearen izaera juridikoa hala ezarriz gero, liburu kontulariak, diligentzia-erregistroak eta behar bezala ikustatutako gainerako dokumentuak aurkeztea, kasu bakoitzean pertsona onuradunari aplikatu beharreko merkataritzako legediak eta sektoreko legediak ezarritako terminoetan, baita dirulaguntzen oinarri arautzaileek eskatzen dituzten egoera kontulariak eta erregistroak ere, egiaztatzeko eta kontrolatzeko jarduketak behar bezala egin daitezkeela bermatzeko.

j) Jasotako funtsen aplikazioaren dokumentu justifikatzaileak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztatzeko eta kontrolatzeko jarduketak egin ahal izateko.

k) Garatutako jardueraren edo jarduketaren gainean, diruz lagundutako kostuaren soberakina edo jasotako funtsak itzultzea, DEALen 36. artikuluan jasota dauden kasuetan.

l) Hizkerak eta irudiek ikuspegi intersektzionala errespetatzea eta, bereziki, sexua eta generoa, dirulaguntza jasoko duen jarduerak edo proiektuak eskatzen dituen dokumentu eta material guztietan.

m) Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea eta, bereziki, euskara erabiltzea diruz lagundutako jarduketarekin lotutako argitalpenetan, iragarkietan eta publizitatean.

n) Onuraduna DEALen 48.1 artikuluan aurreikusita dauden egoeretan baldin badago, deslokaziorik ez egitea.

ñ) Esleitutako «Emakumea industriara» bekak deitzea eta kudeatzea, hautaketa-prozesutik hasi eta prestakuntza amaitu arte eta kontratazio-konpromisoa gauzatu arte, oinarri hauetan xedatutakoaren arabera.

«Emakumea industriara» beken zabalkunderako elementu guztietan, erabilitako euskarria edozein dela ere, baita deialdiari, hautaketari, emakida-prozesuari eta jarraipenari buruzko dokumentu guztietan ere, lehentasunezko toki batean agertu beharko dute «Emakumea industriara» beka-programa identifikatzen duen logotipoak, SPRIren logotipoak eta Eusko Jaurlaritzaren logotipoak.

Era berean, aipatutako elementu eta dokumentuen testuetan berariaz adierazi beharko da, behar adina aldiz eta lehentasunezko toki batean, beka hauek SPRIren eta Eusko Jaurlaritzaren ekimena direla. Azkenik, aipatutako elementu eta dokumentuen testuetan, leku aipagarrian aipatu beharko da «Emakumea industriara» programa hainbat entitate onuradunen bidez kudeatzen dela, eta beharrezkoa izango da SPRIren webgunerako esteka bat sartzea, bertan beken baterako eskaintza kontsulta daitekeela azalduz.

o) Oinarri hauen babesean garatutako jarduketa guztietan eta bekak kudeatzean, honako hauetatik eratorritako betebeharrak betetzea: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoen datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa; eta aplikatzeak den gainerako edozein araudi.

p) SPRIrekin egin beharreko izapide guztietarako solaskide bakar gisa jardungo duen pertsona bat izendatzea.

q) Beka emateko agiria egitea eta interesdunari jakinaraztea, II. eranskinean adierazitakoaren arabera, baita prestakuntza behar bezala emango dela bermatzea ere.

r) Beka bakoitzari lotutako aseguruak kudeatzea eta, kasu bakoitzaren ezaugarrien arabera hala badagokio, bekadunak Gizarte Segurantzaren alta ematea, emakumearen alde aurreikusitako zuzkiduraren kargura, zuzkidura horri dagozkion atxikipenak aplikatuz.

s) Emandako «Emakumea industriara» beka bakoitzaren jarraipena egitea, bekadunak programan egon bitartean ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko.

t) Dokumentuen bidez justifikatzea emandako «Emakumea industriara» beken kopurua eta haien ezaugarriak, baita benetan formalizatutako kontratazio-konpromisoak ere, erantzukizunpeko adierazpen baten bidez (entitate onuradunak sinatua eta, desberdina bada, kontratazio-konpromisoa eskaintzen duen enpresak ere sinatua). Horrez gain, beken garapena zehatz-mehatz jasoko duen laburpen-txosten bat aurkeztu beharko da.

u) Bekadun bakoitzari dagokion bekaren zuzkidura ordaintzea, II. eranskinean ezarritakoaren arabera.

v) Ezinbesteko kasuetan edo behar bezala justifikatutako arrazoiaren bat dagoenean izan ezik, oinarri hauetan aurreikusitakoaren arabera hartutako kontratazio-konpromisoak betetzen direla bermatzea.

w) Dirulaguntza jaso dezaketen programa, jarduera, inbertsio edo jardueren finantzaketaren izaera publikoaren publizitate egokia ematea, gardentasunari buruzko legerian ezarritakoaren arabera.

x) Onuraduna DEALen 48.1 artikuluan aurreikusita dauden egoeretan baldin badago, deslokaziorik ez egitea.

y) Aurrerakina enpresaren kontabilitatean pasibo gisa jasotzea, oinarri hauetan ezarritakoa betetzeagatik emandako dirulaguntza likidatu arte. Itzulketa ebazpen bidez erabakitzen bada, aurrerakin hori SPRIri itzuli beharko zaio, dagozkion interesekin batera.

z) DEALen 30.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, dirulaguntza jasotzen duena enpresa bat baldin bada, operazio komertzialetan egindako diruz lagun daitezkeen gastuak aplikagarria den sektoreko araudian aurreikusitako ordainketa-epeetan ordaindu beharko dira, edo, hala badagokio, Merkataritzako-operazioetan berankortasunaren aurka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako epeetan.

ai) Ez jardutea Europako Segurtasun Estrategiaren esparruan sartzen ez den armamentuaren edo erabilera militarreko teknologiaren ekoizpenean, merkaturatzean edo finantzaketan.

12. artikulua.— Laguntzen ordainketak eta entitate onuradunek emandako laguntzaren justifikazioa.

1.— Oinarri hauen babesean emandako laguntzak entitate onuradunei honako baldintza hauekin ordainduko zaizkie:

(i) Laguntzaren zenbateko osoaren % 50eko aurrerakina, kontzeptu guztiengatik, laguntza emateko ebazpenarekin batera ordainduko da, laguntza emateko ebazpena jakinarazi eta 10 egun baliodun igaro ondoren, baldin eta epe horretan laguntzari berariaz eta idatziz uko egin ez bazaio.

(ii) Edozein unetan eta, nolanahi ere, azken ikasturtea amaitu eta hilabeteko epean, gainerako % 50eko azken likidazioa eskatu beharko da. Egiaztagirien artean, honako hauek egongo dira gutxienez:

a) Entitate onuradunek eta parte hartu duten emakumeek sinatutako ziurtagiria, ikastaroari eta hura egin eta gainditu duten bekadunei buruzko erreferentziarekin, baita gainditu ez duten kasuei buruzkoa ere, dagokion justifikazioarekin.

b) Banakako beka-emateko agiriak, emakume bakoitzak datatu eta sinatuta, II. eranskinean adierazitakoaren arabera.

c) Entitate onuradunaren ordezkariak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena (eta, beste bat bada, industria-enpresaren ordezkariak ere sinatuta), 5. artikuluan ezarritako baldintzen arabera kontratazio-eskaintza loteslea jaso duten emakumeen zerrenda jasotzen duena. Enpresak eskaintako kontratazio-konpromisoa bete ez badu, entitate onuradunak egindako txostena, ez-betetzearen arrazoiak zehaztuz.

Gutxienez, kontratazio-konpromisoen % 50 ez betetzeak gainerako zenbateko osoaren % 50 hori jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko du.

d) Beka bakoitzaren garapenari buruzko deskribapen-txostena.

e) Entitate onuradunak emakumeei eta hirugarrenei egindako banku-transferentzien egiaztagiriak.

f) Kontratututako aseguruak eta egindako ordainketak egiaztatzen dituzten agiriak.

g) Prestakuntza-ikastaroak antolatzeak kostuaren eta egindako ordainketen egiaztagiriak.

h) Kudeaketa-, administrazio-, komunikazio- eta publizitate-gastuen eta egindako ordainketen egiaztagiriak.

i) Dirulaguntzen Lege Orokorra aplikatuz, entitate onuradunak eskatu behar izan dituen hiru aurrekontuak.

2.– Ez da ordainketarik egingo onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekin lotutakoak betetzen ez baditu edo itzultze-bidez kotasunaren ebazpenagatik zorduna bada, araudi aplikagarriarekin bat etorriz.

13. artikulua.– Laguntzak aldatzea.

1.– Aurreikusita dago dirulaguntza ematen duen organoak emandako dirulaguntza edo bere baldintzak aldatzea erabakitzea, gertatutako egoerari buruzko balorazioa egin ostean, ofizioz edo entitate interesdunak eskatuta, baldintza hauek betetzen badira:

a) Alde baten instantziari erantzunez gero, pertsona onuradunak jakin bezain laster komunikatzea eta, nolanahi ere, jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatu baino lehen, DEALen 14.e) artikuluan emandako betebeharra betez.

b) Zenbatekoa ez handitzea.

c) Egindako jarduera edo jokabidea edo egingo dena oinarri arautzaileen xedearen barruan egotea.

d) Aldaketa justifikatzen duten baldintzak onuradunaren borondatearen arabera ez izatea.

e) Aldaketa sustatu duten elementu eta baldintza berriak hasieran eman izan balira, dirulaguntza ukatzeko modukoak ez izatea eta aldaketa ez izatea hasieran onartutako proiektua erabat aldatzeko bezain handiak.

f) Hirugarrenen eskubideak ez urratzea.

2.– Onuradunak emandako dirulaguntza osoa edo partziala jaso badu, eta aldaketarekin zenbatekoa txikitzen bada, DEAlen 40. artikuluan aurreikusitakoa jarraituko da.

14. artikulua.– Datu pertsonalen babesa.

1.– Entitate onuradunak bermatzeko arduradunak izango dira diruz lagundutako jarduketan kudeaketa, gauzatze, jarraipen eta justifikazioaren ondorioz eskuratzen dituzten edo biltzen dituzten datu pertsonalak lege, leialtasunez eta gardentasunez tratatzen direla. Horretarako, oinarri hauetan aurreikusitako helburuak betetzeko behar-beharrezkoak diren datuetara soilik mugatu beharko dute tratamendua.

2.– Era berean, arriskuaren arabera segurtasun-maila egokia bermatzeko neurri tekniko eta antolaketa-neurri egokiak hartu beharko dituzte, baita tratatutako datu pertsonalen konfidentzialtasuna, osotasuna, erabilgarritasuna eta erresilientzia bermatu ere.

3.– Datu pertsonalen tratamendu bakoitzean duten egoera juridikoaren arabera dagozkien betebeharrak betetzeaz arduratuko dira entitate onuradunak, dela tratamenduaren arduradun gisa, dela erantzukide gisa, dela tratamenduaren eragile gisa. Horretarako, hala dagokionean, aplikatu beharreko araudiak eskatzen dituen tresna juridikoak formalizatu beharko dituzte.

4.– Artikulu honetan ezarritako betebeharrak ez betetzea dirulaguntza emateko baldintzak ez direla bete joko da, indarrean dagoen araudiaren arabera sor daitezkeen administrazio-, zibil- edo beste edozein izaeratako erantzukizunei kalterik egin gabe.

15. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Ikusiko balitz onuradunek ez dutela bete oinarri hauetan, aplikatzekoak diren gainerako arauetan eta laguntzen ebazpenean ezarritako baldintzetakoren bat, emandako laguntza eskuratzeko eskubidea galduko du eta SPRIri itzuli beharko dizkio ordura arte kobratu dituen laguntzen diru kopuruak gehi dirulaguntzen arloko legezko interes aplikagarriak, eta behar balitz, legeko jarduketak abiaraziko dira diru kopuru horiek itzul ditzan.

2.– Edonola ere, ez-betetzetzat joko da, artikulu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako:

a) SPRIren baimenik gabe, laguntzaren eskaeran eta dokumentazio osagarrian jasotako jarduerak aldatzea. Laguntza emateko garaian aztertutako baldintzak aldaraziko dituen proiektua gauzatzean gertatutako edozein aldaketa SPRIri ez jakinarazteak ez betetzea ekarriko du ondorio horietarako. Aldaketak baimendu ahal izango dira, horiek SPRIri eskatu bazaizkio eta entitate onuradunak justifikatu baditu (ahal den neurrian), proiektuan aplikatu aurretik; betiere, Programaren helburu diren jardueren eta xedeen izaera hutsaltzen ez bada.

b) Gastu hautagarriak epe barruan ez justifikatzea edo Programa honetan eta laguntza emateko ebazpenean jasotako eskakizunak ez betetzea.

c) Diruz lagundutako proiektua betetzeko epeak gainditzea, betiere epea aldatzeko edo luzatzeko baimenik eman ez bada.

d) Laguntza eskuratzeko Programa honetan ezarritako baldintza eta eskakizunak edo laguntza emateak berekin zekartzan baldintzak bete gabe.

e) Programan edo laguntza emateko ebazpenean aurreikusitako kontrol-neurriak ez onartzea edo horien garapena oztopatzea.

f) Proiektua beste zerbaitera desbideratzea edo laguntzak emateko ebazpenean ezarritako beste edozein betebeharrak ez betetzea.

g) DEALen aurrez ikusitako kausak.

3.– SPRIri dagokio ez-betetzea egiaztatzeko espedienteak hasi, izapidetu eta ebaztea.

4.– Ez badira betetzen deialdi honetan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan jasotako betekizunak (DEALeko 51. artikulua arabera, enpresa-deslokalizazioaren aitorpena barne) eta, hala badagokio, dirulaguntza emateko ebazpenean ezartzen direnak, dirulaguntza ezeztatu egingo da ez-betetze espedienteak ireki ondoren eta SPRIri dirulaguntza edo berandutze-interesak itzuli beharko zaizkio. Itzulketa horiek Zuzenbide Publikoaren diru-sarrerak izango dira, DEALen ezarritakoaren arabera; edonola ere, dagozkion lege-ekintzak eta zigorrak jaso ditzake. SPRIren Nazioartekotze Zuzendaritzari dagokio dirulaguntza ezeztatzeko –eta, hala badagokio, partzialki edo guztiz itzularazteko– espedienteak abiarazi eta ebaztea.

5.– Ezarritako baldintzak partzialki betetzen badira eta, betiere, onuradunaren jarduketak konpromisoak asebetetzen dituela egiaztatzen bada, dirulaguntza ordainduko da partzialki edo, hala badagokio, partzialki itzuliko da, eta kalkulatzekoan kontuan hartuko da egindako jardueraren proportzioa, guztizkoaren gainean. Nolanahi ere, onuradunak kobratzeko eskubidea duen kopuru partzialaren zenbatekoa bat etorriko da emandako dirulaguntzaren behar bezala justifikatutako zenbatekoarekin, justifikazioa egiaztatu eta entitate esleitzailak onartu ondoren.

Zehazki, honako hauek hartuko dira betetze partzialtzat:

(i) Emandako beken % 60 gutxienez benetan esleitu ez izana, oinarri hauetan aurreikusitako baldintzetan eta epeetan.

Ez-betetze horrek programa honen hurrengo deialdietan onuradun izateko aukera galtzea ekarriko du.

(ii) Kontratazio-konpromisoen % 50 gutxienez ez betetzea.

Kasu horretan, ez da ordainduko geratzen den % 50eko ordainketa (12. artikulua). Konpromisoa betetzat joko da prestakuntza gaitasun duen emakumeari kontratazio-eskaintza loteslea egitearekin, baldin eta oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen baditu, nahiz eta emakumeak eskaintza hori onartu ez. Kopuru bakoitien kasuan, ehuneko hori kalkulatzeko, goranzko hurbileneko zenbaki bikoitia hartuko da bete beharreko kopurutzat.

6.– Era berean, programaren xede den jardueraren kostua gainditzeko duen laguntzaren zatia itzuli beharko da, beste laguntza batzuk metatzeagatik gainfinantzaketa gertatzen denean, laguntza kobratu ondoren. Kasu horretan, itzuli beharreko zenbatekoa zehaztuko da gertaera hori adierazteko eta itzulera erabakitzeke emango den ebazpenean.

7.– Aldi boluntario horretan itzulketarik egiten ez bada, premiamendu-bideari ekin ahal izango zaio, aplikagarria den legezko araudian xedatutakoaren arabera.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Aplikatzekoa den araudia.

Programa honi araudi hau aplikatuko zaio:

1.– Dirulaguntzen Erregimena Arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legea.

2.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta Lege hori garatzen duen Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua) dirulaguntza arloko oinarritzko legeriari dagokion guztian.

3.– Europako Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko EB 2831/2023 Erregelamendua, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (aurrerantzean, DBLO), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorrean (aurrerantzean, DBEO) eta datu pertsonalak babesteko gainerako araudi aplikagarrian ezarritakoarekin bat etorriz, jakinarazten da emandako datuak SPRIk tratatuko dituela eta haren Tratamendu Jardueren Erregistroan sartuko direla.

Tratamendu horren helburua, deialdiaren interes publikoan eta parte hartzeko eskabidean oinarritua, eskatutako laguntzaren espedientea kudeatzea da. Datu pertsonalak tratatzeko oinarri juridikoa da SPRIk duen interes publikoa, SPRI Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia sortzeko estatutuetan ezarritako helburuak betetzeko.

Informazio hori gaian eskumena duen Administrazio Publikoari eta SPRI Taldeko enpresei laga ahal izango zaie.

Laguntza emateko espedientea izapidetzen den bitartean eta legez eska daitekeen epean gordeko dira datuak, legezko betebeharrak bete ahal izateko.

Interesdun guztiek eskubidea izango dute datuak zuzentzeko edo ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, datuen eramangarritasunari aurka egiteko edo tratamendu automatizatuan soilik oinarritutako erabaki baten xede ez izateko, bai eta datuak babesteko araudi aplikagarrian aurreikusitako beste edozein eskubide ere, eskubide horiek aplikagarriak direnean, honako helbide elektroniko honetara idatziz bidalita: lopd@spri.eus. Era berean, interesdunak Datuak Babesteko gure ordezkariarekin harremanetan jarri ahal izango dira, idatzizko komunikazioaren bidez, helbide elektroniko honetan: dpd@spri.eus

Era berean, interesdun orok edozein erreklamazio aurkezteko eskubidea du dagokion kontrol-agintaritzan, eta SPRIren kasuan, Datuak Babesteko Euskal Autoritatea izango da: www.avpd.eus

SPRIk Datu Pertsonalen Babeserako esparruan egiten duenaren inguruko informazio gehigarriaren eta xehakatuaren berri izateko, jo <https://agenda.spri.eus/es/aviso-legal/> web-orrialdeko pribatutasun-politikara.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak oinarri hauei buruz hartzen dituen erabaki guztiak administratiboak dira eta, beraz, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa da jurisdikzio eskuduna.

I. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDU NORMALIZATUAREN EDUKIA

[Izen-abizenak] jaunak/andreak, [...] zenbakidun NANA indarrean duenak, hala behar izanez gero, [eskatzailearen izena] ordezkatzeko du, [...] IFZ zenbakia duena eta egoitza-jarduera [Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera ekonomikoa duen entitate eskatzailearen zentro bat adierazi behar da gutxienez] helbidean duena, eta:

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU HAREN ERANTZUKIZUNPEAN:

I.– Programa honen xede den laguntza jasotzeko indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituela; zehazki, honako hauek:

– Aurreko hiru urteetan de minimis laguntza gisa 300.000 euro baino gehiago ez dituela jaso.

– Eskaera honi dagokion apartatuan alderdi hauei buruzko informazioa jasota dagoela:

a) Aurreko hiru urtetan jasotako de minimis laguntzak; bertan adierazi beharko da laguntza hori noiz eman zen, zer organismok eman zuen, zein programaren baitan eta laguntzaren zenbatekoa.

b) Proiektu hori bera gauzatzeko beste entitate publiko zein pribatu batzuei eskatutako eta haiek emandako dirulaguntzak, bertan adieraziz laguntza hori noiz eskatu zen, eta, hala badagokio, zein organismok eman zuen, zein programaren baitan eta laguntzaren zenbatekoa.

– Programaren oinarrien 4.2 artikuluan aurreikusitako egoeraren batean ez egotea, hau da:

a) Hala behar izanez gero, sektore publikoren batekoak edo sektore publikoren baten parte ez izatea, aplikagarriak diren sailkapen instituzionalerako arauen arabera.

b) DEALen 13. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean ez egotea, hau da:

i) Epai irmo baten bidez dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzearen zigorra jaso izana; edo prebikazioarekin, funtzionario-eroskeriarekin, ondasun publikoak bidegabe erabiltzearekin, influentzia-trafikoarekin, iruzurrekin eta legearen aurkako ordainarazpenekin lotutako delituengatik edo delitu urbanistikoengatik zigorra jaso izana.

ii) Borondatezko konkurtso-aitorpena eskatu izana, prozeduraren batean kaudimengabetzat aitortu izana, konkurtsoan aitortuta egotea (hitzarmen bat eragingarri bihurtu denean izan ezik), esku-hartze judizial baten mende egotea edo uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legeak xedatutakoaren arabera ezgaituta egotea, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako ezgaitze-aldia amaitu gabe egonda.

iii) Kausaren batean errudun deklaratu izateagatik, Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa eragin izana.

iv) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateetako administratzaileak edo beste pertsona fisiko batzuen legezko ordezkariak direnak honako lege hauek jasotako kasuen batean sartuta ez egotea bateraezintasuneko erregimenari dagokionez: Administrazio Publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legea eta Kargudun Publikoen Interes Gatazkak eta Jokabide Kodea Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legea, edo Hauteskunde Erregimen Orokorreko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan xedatutako hautetsia izatea, gai horiek arautzen dituen araudi autonomikoan edo lege horretan ezarritako baldintzen arabera.

v) Indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez izatea, araudiak zehazten duen moduan.

vi) Zerga-egoitza erregelamenduz zerga-paradisu gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean izatea.

vii) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrarekin lotutako ordainketak egunean ez izatea, araudiak zehazten dituen baldintzetan.

viii) Epai irmo baten bidez, zigor gisa, dirulaguntzak jasotzeko aukera galdu izana, lege honen edo hala ezartzen duten beste lege batzuen arabera. Zehatzago esanda, dirulaguntzen onuradun edo entitate kolaboratzailearen izaera ezin izango dute eduki sexu-arrazoiarekin lotutako jarduera baztertzaila egin badute edo sexu-arrazoiengatik bazterkeria egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko araudia ez betetzeagatik zigor administratiboa edo penala jaso badute, zigor horretan ezarritako aldiaren zehar. Honako enpresa hauek ere ezingo dute jaso laguntzarik edo dirulaguntzarik: Estatuko araudiaren arabera, berdintasun-plan bat izan behar dutenek baina ez dutenek; eta 50 langile baino gehiago izanik, sexu-jazarpena edo sexu-arrazoiengatik jazarpena prebenitzeko eta hari aurre egiteko neurriak ezarri izana ziurtatzen ez duten enpresek, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko Estatuko legediak ezarritako baldintzetan.

ix) Pertsona fisikoa edo juridikoa, pribatua edo publikoa, Ekonomia zirkularrerako kutsatutako lurzoruei eta hondakinei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astunengatik administrazio-bidean ebazpen irmo bidez zehatua egotea, dagozkion neurri zuzentzaileak abian jarri eta isuna ordaindu arte.

x) Desgaitasuna duten pertsonen mesedetan, lanpostuak erreserbatzeko lege ezarritako kuota bete ez izana, hori bete ahal izateko neurri alternatiboak abian jarri direla frogatu gabe.

c) Europako Batzordeak laguntza bat lege kanpoko delat edo barne-merkatuarekin bateraezina dela erabaki ondoren, laguntzak erreuperatzeko agindu baten menpe ez egotea.

d) LGTBIfobiarik ez egitea, ez sustatzea eta ez bultzatzea, bihurketa-terapiak sustatu edo egitea barne, pertsona transen berdintasun erreal eta eragingarrirako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen arabera.

e) Europako Segurtasun Estrategian sartzen ez den erabilera militarreko armamentua edo teknologia ez duela ekoizten, merkaturatzen eta finantzatzen.

II.– Adierazpen honek barne hartzen duela, Programaren oinarrietako 5.2.e) artikuluan adierazitakoa betez, eskatzailearen konpromisoa enpresa ez deslokalizatzeko (DEALen 49. artikuluan jasotako baldintzen arabera) eta gehiegizko finantzaketarik ez egiteko (DEALen 9.4.h) artikuluen arabera).

III.– Indarrean dagoen araudian jasotako eskakizunak betetzen ditu.

IV.– Eskaera honetako datu guztiak eta aurkeztutako dokumentazio guztian jasotakoak egiazkoak eta osoak dira. Horrekin lotuta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 28.7 artikulua xedatutakoaren arabera, dagokion erantzukizuna hartuko dut neure gain.

V.– Erantzukizunpeko adierazpen edo komunikazio batean gehitutako edozein datu edo informazio guztiz zuena ez bada, faltsua bada edo hutsak baditu, edo horiek Administrazio esku-

dunaren aurrean aurkezten ez badira, ezingo da eraginpeko eskubidea edo jarduera gauzatu, gertakari horien berri izaten den unetik bertatik; gainera, dagozkion erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak ezarriko zaizkio, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluko 4. apartatuan ezarritakoaren arabera.

[...] Goian jasotako adierazpenen edukia onartzea.

II. ERANSKINA

«EMAKUMEA INDUSTRIARA» BEKA-PROGRAMAREN 2026KO OINARRIAK

«Emakumea industriara» 2026ko beka-programak Euskadiko industria-enpresetan emakumeak lanpostu produktiboetan txertatzea sustatzea du helburu.

Horretarako, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak laguntza ekonomikoak emango dizkie hautatutako entitateei programa hori kudeatzeko, eranskin honetan eta programaren oinarrietan ezarritakoaren arabera.

1.– «Emakumea industriara» beken helburua.

Bekadun izaera eskuratzeko, dagokion entitate arduradunak beka eman izanaren agiria egin beharko du.

Programaren esparruan bekadun diren emakumeek honako eskubide hauek izango dituzte:

1.1.– Kontratazio-eskaintza egin aurreko doako prestakuntza-ikastaroa, beken ardura duen entitateak antolatuta eta finantzatuta. Prestakuntza horretan parte hartzea derrigorrezkoa izango da bekadunarentzat; bestela, emandako beka galtzea ekarriko du.

1.2.– Prestakuntza-aldian, emakume bakoitzaren dedikazioa estaltzeko hileko 1.000 euroko zenbateko ekonomiko gordina jasotzea (hala badagokio, entitate onuradunarentzat, enpresentzat eta emakumeentzat).

Beka emateak eta baliatzeak ez du inolako kontratu- edo estatutu-harremanik sortuko bekadunaren eta beken entitate arduradunaren artean: SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa edo prestakuntza egiten den enpresa edo organismoak.

2.– «Emakumea industriara» bekak eskuratzeko baldintzak.

2.1.– «Emakumea industriara» beketara sartu nahi duten emakume interesdunek deialdi honetan gehienez prestakuntza-ikastaro batean parte hartu ahal izango dute, eta honako baldintza hauek bete eta egiaztatu beharko dituzte:

a) Kontratazio-konpromisoa egiten duen enpresan edo entitatean inoiz lan egin ez izana edo praktikak egin ez izana, ezta industria-arlokoak ez diren enpresetan bi urte baino gutxiagoko lan-esperientzia izan ere.

b) Indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

c) Ezin izango dute parte hartu dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta dauden eskatzaileek, ez eta horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuren baten eraginpean daudenek ere, sexu-diskriminazioagatiko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testuategina onaritzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan xedatutakoaren arabera.

d) Ezingo dira onuradun izan Dirulaguntzen Araubidea Arautzen duen 20/2023 Legearen 13. artikuluan ezarritako egoeraren batean dauden pertsonak.

2.2.– Aurreko apartatuan jasotako baldintzak egiaztatzea dagokion entitate arduradunaren aurrean egingo da. Horretarako, emakume interesdunek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

a) Nortasuna egiaztatzeko dokumentazioa eta curriculum vitae-a.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, honako alderdi hauei buruzkoa: kontratazio-konpromisoa egiten duen enpresan edo organismoan aurretik lan egin ez izana edo praktikak egin ez izana; indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea; eta Dirulaguntzen araubidea arautzen duen 20/2023 Legearen 13. artikuluan ezarritako egoeretako batean ez egotea.

3.– «Emakumea industriara» bekatarako emakumeen hautaketa-prozesua.

Beka-eskabidea aurkezteak oinarri hauetan xedatutakoa onartzea dakar. Pertsona bakoitzak eskaera bakarra aurkeztu ahal izango du programaren entitate onuradun baten aurrean, gehienez ere prestakuntza-ikastaro baterako.

Beken ardura duen entitate bakoitzak egingo du hautaketa, honako prozesu honetan oinarrituta:

a) Dagokion beka-programaren deialdi publikoa egitea. Bertan, bete nahi diren beken kopurua eta beka bakoitzaren profila jasoko dira; halaber, aurretik adierazitako eskaerak formalizatzeko eta egiaztatzeko dokumentazioa aurkezteko gutxieneko epea ezarriko da.

b) Aurkeztutako dokumentazioa osoa dela egiaztatzea eta, hala ez bada, interesdunei eskatzea dokumentazioa gehitzeko, ezarritako gehieneko epean.

c) Currículum vitae-a aztertzea.

d) Beken entitate arduradunaren Hautaketa Epaimahaiak banakako elkarriketa egitea. Elkarriketa horren bidez, hautagaiaren profila kontratazio-konpromisoa eskaintzen duen enpresa edo entitateak eskatutako profilerak egokitzen den baloratuko da.

Hautaketa-prozesua amaitutakoan, deialdia egiten duen entitateak beka emateko dagokion agiria egingo du. Bertan, bekaren zuzkidura, egin beharreko zereginak eta beka behar bezala garatzeko garrantzitsutzat jotzen diren gainerako alderdiak jasoko dira.

Beka emateko agiria hautatutako emakumeei jakinaraziko zaie.

4.– Bekadun diren emakumeei dagokienez, beken entitate arduradunek dituzten betebeharrak.

«Emakumea industriara» beka-programako beken entitate arduradunek eranskin honetan adierazitako onurak erabat beteko direla bermatzeko ardura dute, eta, horren ondorioz, honako betebeharrak hauek dituzte:

a) Bekadunari prestakuntza ematea.

b) Kontratazio-konpromisoak formalizatzea, oinarrietan ezarritakoaren arabera.

c) Prestakuntza egiten den bitartean bekaduna estaltzeko aseguru-poliza kontratatzea, estaldura egoki eta nahikoekin.

d) Bekaren zuzkidura ekonomikoa ordaintzea, prestakuntzan benetan parte hartu dela eta ikastaroa behar bezala aprobetxatu dela egiaztatu ahala, modu progresiboan.

e) Emakumeak kontratatu aurretik, derrigorrezko prestakuntza ematea. Prestakuntzaren datak eta ordutegiak behar besteko aurrerapenarekin jakinarazi beharko zaizkie pertsoneri.

f) Kasu bakoitzaren ezaugarrien arabera hala badagokio, bekadunak Gizarte Segurantzaren alta ematea, emakumearen alde aurreikusitako zuzkiduraren kargura, zuzkidura horri dagozkion atxikipenak aplikatuta. Industria-enpresa bada alderdi horiek bere gain hartzen dituenak, erantzukide gisa jardungo du.

5.– Bekadunaren betebeharrak.

a) Emandako beka onartzea. Ildo horretatik, beka eman zaiola jakinarazi eta 5 laneguneko epean ez badu dirulaguntza emateko agiria sinatzen, eskaerari uko egin diola ulertuko da.

b) Prestakuntza-ikastaroan parte hartzea eta behar bezala aprobetxatzea, jarrera kooperatiboa mantenduz.

c) Emakume bekadun izaera galtzen bada, soberan jasotako zenbatekoak itzultzea.

d) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatzen dieten informazio guztia ematea, laguntzen zertarakoa fiskalizatzeko dituzten eginkizunak betez.

e) Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen 20/2023 Legearen 14. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritako gainerako betebeharrak betetzea.

f) Bekaren helburu egokia lortzea eragin dezakeen edozein gorabeheraren berri ematea beka-
ren entitate arduradunari.

6.– Bekadun izaera galtzea.

Prestakuntza amaitzeagatik edo beken entitate arduradunak onuradun izaera galtzeagatik ez ezik, pertsona bekadunaren izaera honako arrazoi hauetakoren baten ondorioz ere amaitu ahal izango da:

a) Pertsona bekadunak uko egitea.

b) Eranskin honetan edo oinarrietan deskribatutako betebeharrak ez betetzea.

e) Prestakuntzara ez joatea behin eta berriz eta justifikaziorik gabe.

f) DEALen eta aplikatu beharreko gainerako araudian jasotako edozein kasu gertatzen bada.